

TOKIKOM **Pil-pilean**

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko apirila • 290. alea



FELI OREGI

**Umeen jokaeren atzean beti dago
zergatiren bat**

HERRITARREN
ESKUBIDEEI

ehbildu
herrikerabaki

BAI!



TROIKAREN EUROPARI

EZ



Alkarri eskua emonda



Txiki Amuategi

Oskar Elizburu

Epa, Oskar!
Zer barri Arrasate aldian? Hire jaioterrixan, zaharrak barri!

Urte dezente daroiaguz kritikuak izaten danakin, obreakin, politikuekin, arbitruuekin, maisuekin, medikuekin, tabernarixekin, brigadakuekin, munizipalekin, dendarixekin eta aldameneko Joxe Antoniokin. Ze ondo pasatzen dogun gainera! Baiña, kritikatzetik egittera pasau ezian, jai juagu! Alkarrekin gustura eta eroso bizi izateko ilusiñua eta oinarri barrixak bihar jittuaguz; goitik beherako politikiak emon jok emon biharrekua.

Poliki-poliki, baiña igartzen hasi gaittuk aldaketa txikixak; Alkarrekin Soraluze Eginezek herritar askoren parte hartzia lortu jok eta etorkizunian nolako herrixa izan nahi dogun imajinatzen hasi gaittuk. Lehenengo pausua dok, baina ehunka herritar, ideologi eta jatorri desberdinetakuek, geure herrixan etorkizuna alkarrekin irudikatzen ikustia eredugarri eta pozgarrixa dok benetan.

“Alkarrekin gustura eta eroso bizi izateko ilusiñua eta oinarri barrixak bihar jittuaguz”

Horrekin batera, beste Plaentxiar talde zabal batek, Gure Esku Dago mugimenduarekin bat egin eta herritar guztixondako onargarrixa dan erabakitze eskubidia teoriatik praktikara eruateko konpromisua hartu juagu. Oinarrizko kontuetan bat egin eta alkar hartuta, ametsik zoruenak be egixa bihurtu geinkezela konbentzituta gaozak. Horren erakusgarri izango dok, plaentxiar “zoro” kuadrilla batek, maiatzian 31n, Karakatera, 24 ordutan, txandaka, eten barik, igo ta jaitsi, igo ta jaitsi, igo ta jaitsi...egingo daben ekintza ikusgarrixa. Karakate Gure Esku daguala erakutsiko juagu; eta Euskal Herrixa... be bai! Apuntatzen al haiz?

Epa, Txisto.

Ez dok erronka makala hor bota duana: 24 ordu, geratu barik gora eta behera Karakateko aldapetan? Ondo ulertu ete juat? Plaentxian ala Eibarren bota juek erronkia? Gehixegi ez dok izango 24 ordu geratu barik ibiltzia? Epa, epa, epa; txandaka izango dok gure esku daguala erakusteko badok; hala badok prest najaok, jakina!

Elkarrekin bidia egitteko ordua juagu, bai, Euskal Herrixan, hausnarketa sakonarena, alde guztietakuen. Zeiñek bere zilborraren irabaxari baiño danon onurari eta aurrera egitteko bidia begiratzeko ordua. Hor aittatu dittuan bi ekimenok benetan pozgarrixak dittuk, Txisto; azpimarratzekuek. Elkarrekin proiektuak izatia, elkarren lagun eta kide izatia, indarrak batzia eta norabide berian jartzia dok helburua; askoren helburu txikixak batzia, bat eta bakarra izan barik be, bat haundi eta plurala izateko.

Batian, herrixa zelakua izan bihar dan adosteko bidia ikusten juat, elkarri mokoka ibili biharrian konponbiderako modua; elkarri entzuteko eta aditzeko modua dok hori, ondokua onartzeko eta harek esaten dabena be gure egitteko aukeria eukitzia. Ikusi juat mendixak eta erreka disfrutatzeke plana badaguala tartian, euseria, kulturua... Garai batian saiatu gintzuan, Urakapinekin, holako zeozer egitten euseriaren inguruan, ia orainguan boro-biltzerik dagan!

“Indarrak batzia eta norabide berian jartzia dok helburua”

Bigarrenian, gure esku dago horretan, Arrasatekuan nok partaide eta ezin ba bi lekutan batera egon. Aparte baina bat einda egongo gaittuk, dana dala! Erabakitzeke eskubidiaren aldeko olatua ikustekua izango dok, ia catalanen eredura iristen garan eta, castel erraldoi batekin, Karakate baino gorago iristen garan!

Gutunak

Parrandan 2014 – 2015 ikasturterako matrikulazioa

ludoteka

Ludotekara etorri eta bertan jolastu, eskulanak egin, lagunekin ongi pasatu eta giro alai batean ondo-ondo igarotzea nahi baduzu, gerturatu zaitetz izena ematera. Bertara etortzeko adina 4 urtetik 14 urte bitartekoa da. Matrikulatzeko epea ekainaren 9tik 20ra bitartean egongo da zabalik.

Soraluzeko EAJ/
PNV udal taldea

"Ikusikou ipintzen doun ala ez"

Hauek izan ziren herriko alkatearen hitzak, 2012ko urriaren 3an izandako plenoan, bandera espainiarraren gaia eztabaidatu genuenean. Gure alderdiak eta berau ordezkatzan dugun kargu publikoek urte askotan jasan behar izan ditugu gai honen harira irain, birao pintada eta hainbat gertaera. Gertaera guzti hauek, Ezker Abertzaleak maltzurki diseinaturiko estrategia politiko baten baitan koka ditzazkegu. Publikoki salatzea nahi dugun estrategia politiko suntsitzaila. Zeren eta guzti hau jasan eta pairatu ondoren, orain, besteoi galdatzen zigutena beraiek ez dute betetzen, espainiako legediari eta aginduei men eginez. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!!!

Esaten da, denborak, bakoitza bere tokian ipintzen duela, eta kasu honetan ere horrela izan da.

Soraluzetar guztiok ikusi bait degu, ezker abertzalekoa den alkateak, udaletxe-ko balkoian ipinitako espainiar bandera, abertzale sentitzen geranon, lotsarako.

Bittartetik



Ines Lascurain

Zer da hori?

Edozeini giza probetan nabilela esaten diodanean entzuten dudan galdera da. Azalpena denontzat ulergarria izan dadin: idi-proben berdina da, baina harririk tiraka 8 pertsonak jarduten dute. Momentu horretan jendearen lehenengo erreakzioa ... "Zu zorrotza zaude, hori animalien kontua da!!"

Nire ustez, komentario asko ezjakintasunetik datoz. Nik orain dela hamar bat urte ezagutu nuen. Herri kirol modalitate asko ikusiak nituen: aizkora, harri-jasotzea, trontza ... baina giza probak ezezagunak zitzaizkidan. Neri probatzeko gogo sortu zitzaidan.

Aukera iazko udan agertu zen. Lagun batek esan zidan Mendaron neska talde bat osatzen ari zirela, berak izena eman zuela eta jende bila zebiltzala, eta halaxe hasi nintzen. Irailean izan genuen lehen entrenamendua eta kirol dibertigarria denik ez dut esango, baina niri gustatu egin zitzaidan. Kirola egiteaz gain, norberaren indarra eta erresistentzia neurtzeko balio du, eta taldean egiten denez giro polita sortzen da.

Orain arte lau edo bost erakustalditan hartu dut parte, eta azkeneko minutuetan, indarrak agortzen ari zaizkizunean, ia ezinean zaudenean, ikusleen garriak eta animoak entzuteak amaitzeko behar duzun indarra ematen dizu.

Orain, erakustaldi bi egiteko, Soraluzen sortu dugu taldea. Hemendik, probatzea nahi duen guztiari etortzeko gonbita zabaltzen diot. Kirol berri bat eza gutzeko aukera ezin hobea da! Animate eta probatu!!



“Topikoak erabiltzea kritikatu liteke, baina ez da exajeratu behar”

Inma Matute Zabala

“8 apellidos vascos” pelikulan parte hartu du



Inma, filmearen grabazioan.

Martxoan estreinatu zen, eta dagoeneko 5,3 milioi pertsonak ikusi dute señorito andaluziarren eta neska abertzalearen arteko maitasun istorioa kontatzen duen filma: Ocho apellidos vascos. Hilabetean, Espainian gazteleraz ekoiztu den pelikularik ikusiena bihurtu da.

Filmak izugarriko arrakasta izan du Euskal Herrian ere. Elgoibarren esaterako, 2.200 pertsona baino gehiago hurreratu dira filma ikustera, eta zortzi emanaldi eskaini behar izan dituzte.

Filmean soralezetar bat ageri da: Inma Matute. Figurante lanak egin ditu, lepoan zapi palestinarra hartuta.

Zein izan da zure papera?

Manifestazioaren buruan noa, pankarta hartuta. Pentsa, ni pankarta eramaten! Egia esateko nahiago nuen ezkontzako andrearen pertsonaian jarri izan banindute ... baina emakume abertzalearen itxura hartu didate eta zapi palestinarra eta marradun nikia jantzita jarri naute pelikulan.

“Okerrago laga dituzte andaluzak, ezjakin paperean”

Zer dela-eta aurkeztu zinen casting-era?

lazko apirilean lagun batek komentatu zidan casting-a Arrasaten izango zela, eta joan egin nintzen proba egitera. Niri mila saltsetan ibiltzea gustatzen zait, eta antzerkigintzak asko erakartzen nau. Lehe-

nengo pausoak emakumezkoen Zubia antzerki taldean eman nituen. Pelikula horrek zinemagintza barrutik ezagutze-ko aukera eskaintzen zidan, eta ez nuen aukera hori galdu nahi izan.

“Zapi palestinarra eta marradun nikia jantzita jarri naute”

Zer moduzko esperientzia izan da?

Muntaia aldetik errodajea nola egiten zuten ikustea gustatu zait gehien. Atrezzoan benetako ertzainek parte hartu zuten, eta 200 lagunek jardun genuen figurante lanetan. Bi egunez Zumaiako kale batean izan ginen, gora eta behera, goizean hasi eta arratsalderaino. Luze jo zuen, baina merezi izan du. Gainera, 28 euro kobratu genituen eguneko. Kuriosoena izan da gizarte segurantzian artista moduan alta emanda jardun dudala. Esaten diet etxekoei, orain, benetako artista batekin bizi direla! (barreak)

Zer sentitu duzu pelikula pantaila handian ikusi duzunean?

Espero nuena ikusi dut: barre egiteko eta ondo pasatzeko filma bat. Ikusle asko eta barre asko. Nire burua zineman ikusteak ere Ilusioa egin dit.

Zergatik uste duzu izan duela horrenbesteko arrakasta filmak?

Sarrerarik gabe geratu eta Eibarrera birritan joan behar izanak zer pentsatua ematen du. Ilara luzeak izan dira, eta emanaldi

guztietan aretoa leporaino bete da jendez. Egia da hedabideetan propaganda handia egin diotela, eta ahoz-ahokoak ere asko funtzionatu duela, baina nire ustez gakoa da krisia ahaztu nahi dugula, zinemara burua entretenitzera eta ondo pasatzera goazela, eta pelikulak horretarako osagaiak ditu.

Euskaldunen eta andaluzen topikoak baliatuz umore erraza egitea egotzi dio zenbaitek?

Topikoak erabiltzen dituzte, bai, hori ukazina da, baina ez da exajeratu behar. Euskaldunon kasuan azentuaz egiten dute barre, baina egia da azentua dugula, eta zergatik ez dugu ba umorez hartuko? Okerrago laga dituzte andaluzak, ezjakin paperean. Baina ez zait iruditzen eztabaida hor dagoenik. Badira hori baino pelikula eraikitzaileagoak; hala ere, pelikulak funtzionatu egin du. Azken batean, edozein iritzik baino pisu handiagoa du ikuslearen gogoak.

“Ilusioa egin dit nire burua zineman ikusteak”

Bidean omen da bigarren partea ere, animatuko zinateke?

Bai, zela ez, ba! Lagunei ere gomendatu diet; ongi pasatu eta jende berria ezagutzeaz gain, pelikula bateko errodajea, muntaia eta protagonistak bertatik bertara ezagutzea esperientzia polita da, eta berria.

Babes zabala herrian Gure esku dago mugimenduari



Zapatuko aurkezpena.

Zapatuko agerraldian erabakitzeke eskubidearen aldeko herritar mugimenduarekin bat egin zuten herriko hainbat taldek, alderdik eta norbanakok. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, dagoeneko 200 soraluzetarrek baino gehiagok eman dute izena ekaineko herritar-katerako. Datozen asteotan kopuru hori biderkatzea espero dute. Izena emateko guneak honakoak dira: Bolintxo, Mendi-zabal, Txurixu, Gaztetxea, Arranoa, Bolia eta Batzokia.

Maiatzean jaialdia

Agerraldian jakinarazi zutenek, maiatzaren 31 eta ekainaren 1a bitartean erabakitzeke eskubidearen aldeko jaia antolatuko dute herrian. Aurreratu dute bi egunotan zehar honakoak izango direla, besteak beste: Karakate 24 orduan, emakume-probak, txahal-errea, kontzertuak...

Espainiarra falta

Gobernu ordezkartzaren agindua betetz, apirilaren 14an bandera espainiarra, europarra eta ikurriña ezarri zituen udal gobernua udalategiko fatxada nagusian. EH Bilduk "inposizioa" dela salatu du eta EAJK aurpegi-ratu dio Ezer Abertzaleari "lehenago horrenbeste gaitzetzen zuena egin izana". Hala ere, bandera espainiarra desagertuta dago apirilaren 18tik.



Libururik gustokoenak deskontuarekin

Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa jarri du martxan Pil-pilean Euskara Elkarteak liburutegiarekin eta Iratxo goxodendarekin batera. Apirilaren 23tik ekainaren 30era bitartean liburutegian euskarazko edozein liburu maileguan hartu, irakurri, eta liburu bat erosteko %25eko %50eko deskontu txekoa jasotzeko aukera izango da. Liburuia erosi, eta lagun, senide, edo norbere buruari oparitzea da proposatzen dutena.

FotoNotizia



Txurrukako ondorengoak Argentinan

Argentinako Ramallo herrian antolatu dute, aurten, bosgarrenez, "Zavaleteada" izeneko topaketa. XIX. Mendean Txurrukatik Argentinara joan ziren lau anai-arreben (Bartolome, Agustin, Josefa, Antonio eta Jose Maria) ondorengoak batu dira bertan, Zabaleta abizendunak, Mexiko eta Argentinatik etorritakoak. Aurten inoiz baino gehiago batu dira: 250 senide.



M.A.H., S.L.
Tailerrak

Dekoletajeko
piezen ekoizpena

Tel: 943 75 30 22; Fax: 943 75 30 88
Mendiola industrialdea 14; 3. eraikina
23 P.K. 20590 Sorluze

Javier Alberdi

Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Sorluze

Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik

Astelehenaz geroztik zabalik dago Kukumixok antolatu dituen udaleku irekietan izena emateko epea. Matrikula-orriak maiatzaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxeko harrera-bulegoan. Udalekuak uztailearen 7tik 18ra bitartean egingo dira eta haur hezkuntzako 1. eta 2. mailako eta lehen hezkuntzako umeei zuzenduta daude.

Enpresa berriak sortzeko dirulaguntzak

Debegesak Debabarrenean enpresa berriak sortzen laguntzeko dirulaguntza deialdia zabaldu du, eta 10.000 euro arteko laguntzak emango dituzte. Urtarrilaren 1etik aurrera ekonomia-jardueren gaineko zergan (IAE) eta Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden Eibar, Mutriku, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Soraluzeko enpresa berriei bideratutako laguntzak dira. Eskerak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Debegesaren egoitzan. Informazio gehiago: 943 82 01 10 (Debegesa) / pymes@debegesa.com

Haurreskolako matrikula zabalik

Haurreskolan umeak matrikulatzeko epea maiatzaren 5etik 14ra bitartean izango da zabalik. Izen-ematea bera, edota, beroni buruzko edozein argibide jasotzeko haurreskolara bertara jo edo 943751332 telefonora dei daiteke. Haurreskolak 21 plaza dauka eta 0 eta 1 urteko haurrei eskaintzen die zerbitzua.

Jubilatuak Amurriora

Maiatzaren 7an Amurriora doaz ltxaropenakoak. Goizeko 9:15etan Estaziñotik atera eta La Encina santutegian egingo dute lehen geldialdia. Ruperto jatetxean bazkaldu eta 19:00ak aldera itzuliko dira herrira. Prezioa 26 eurokoa da.

Hezkuntza Plazara eguna maiatzaren 9an

Hezkuntza esparruan diharduten hainbat eragileren parte hartzearekin Hezkuntza Plazara eguna antolatu dute maiatzaren 9rako. Hainbat ekitaldi egingo dira egun osoan zehar: erakusketak, jolasak, bazkaria, tailerrak... herriaren erdialdean egokituko diren hiru gune nagusitan (jolasenea, tailerrenea eta sorgunea). Eragileen arteko "harremanak estutzea, eragileen jarduna herrian ezagutaraztea eta hezkuntzaren eskolaz kanpoko dimentsioa ikusaraztea" dira helburu nagusiak.

Ikastaroak herritarrendako

Egunean zehar antolatuko diren ikastaro eta tailerretan parte hartzeko izena eman beharra dago: ibilaldi historiko gidatua herrian zehar, larrugintza, ehoziri, pintura, gorputzadierazpen eta dantza tailerra...



Hezkuntza Plazara! egunaren aurkezpen ekitaldia.

Bestalde, haur eskolak jolas heuristikoak antolatu ditu 0-2 urtekoendako (haur eskolara joaten ez direnendako ere bada). Izena udaletxean eman daiteke maiatzaren 8ra arte.

Hirigintza proposamenak aztertzeko bilera irekia

Udalak hirigintza plana berritzeko abiatu berri duen prozesua dela eta, hasierako zenbait proposamen jasotzen dituen aurre-txostena osatu du: hilerria lekuz aldatzea, kañoi fabrikako inguruen birmoldaketa... proposatzen dira bertan Hain zuzen, proposamenok aztertzeko, maiatzaren 10ean (zapata) 10:00etatik 13:00etara bitartean batzar irekia egingo da antzokian. Dokumentua eskuragai dago interneten baina maiatzean zehar udaletxean erakusketa antolatzeko asmoa ere iragarri du udal gobernua. Azken honen esanetan "oso gai garrantzitsua da herriaren etorkizunerako" eta prozesuan parte hartzera animatu ditu herritarrak. EAJk ere idatzia

zabaldu du herritarrei parte hartzeko dei eginez. Dokumenturako esteka: <http://www.filedropper.com/soraluzepgou-av2014-03>

Alkarrekin bilera

Alkarrekin jasotako egitasmoak garatzeko bilerak ere hasita daude. Jarduera fisikoaren praktika bultzatzearen ingurukoa egin zen apirilean, eta *herri identitatea indartu, ibaia eta mendia aisialdi, kirol eta hezkuntza ekimenetarako erabiltzea sustatuz* egitasmoa lantzeko bilera deitu du Udalak maiatzaren 7rako (18:30ean udaletxean).

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



FELI OREGI

“Zazpi urtera arteko pausoetan oinarritzen da pertsonen garapena”

Arazoak konpondu ahal izateko ulertu egin behar da gertatzen dena, eta ulertu ahal izateko, jakin. Felik bide hori egiten laguntzen die arazoak dituzten ume eta familiei.



Jarduten dugu hezkuntza behera eta hezkuntza gora... baina zer da hezkuntza?

Hezkuntza zerekin lotzen dugu, eskolarekin? Eskoletan metodologia ezberdin asko dago eta hori azkenean gustu pertsonalen arabera da, baina nire ustez hezkuntza edo heziketa esaten dioguna ez da nagusiki eskolak emateko metodologia edo materia multzo bat, hori ere bada, baina bizitzarekiko jarrera eta jokiera multzoa da gehiago, bizitzen ikastea, eta hori, hasierako oinarririk sendoena etxean jasotzen da. Eta jasotzen dugun oinarri hori bizitzako zeregin guztietan erabiltzen dugu gero.

Ikasi leku guztietan egiten dugu.

Bai. Ikasten dugu eta hezten gara alde guztietan. Etxean gauza batzuk ikasten

dira, lanean beste batzuk, gaztetxokoa beste batzuk ... Baina ikasketaren oinarrian errespetua dago: errespetua bikoitearekiko, errespetua umeekiko, errespetua norbere buruarekiko... Horrek ematen du aukera harremanak aberasgarriak izateko eta bizitzen lagunduko diguten irakasgaiak ateratzen joateko, bai umeen kasuan eta bai helduenean.

Pertsonak errespetatuak sentitzen bagara gero geuk ere errespetuz jokatzeko dugu. Errespetua da heziketaren oinarrietako bat, eta etxetik hasten da.

“Errespetua da heziketaren oinarrietako bat, eta etxetik hasten da”

NORTASUN AGIRIA

Bankuan lan egitetik umeekin lan egitera pasatu da. Hamalau urte pasatu dira Oierrek burmuineko lesioa jasan zuenetik, eta urteotan bere bizimodua “beltzetik zurira” aldatu dela dio. Umeen ikasketa prozesua zelakoa zen ikasten hasi zen Oierri laguntzeko, eta harrezkero ikasten jarraitu du, etenik barik, umeen garapen motore eta sentsorialaren prozesuak ulertzeko ahaleginean. Orain, hutsune neurologikoen ondorioz arazoak dituzten umei laguntzen egiten du lan, eta maite du lan hori.

HITZALDIA

Zer egin ikasteko zailtasunen aurrean?**Maiatzaren 16an, 18:00etan, antzokian**

Hitzaldiaren helburua da 0tik 7 urtera bitarteko garapen motore eta sentsorialen garrantzia etorkizuneko ikasketa zailtasunetan, ze zailtasun askoren atzean etapa horiek behar bezala eman ez izanaren ondoriozko gabeziak daude. Etapak ezagutzea ona da, adi egoteko, alde batetik egiten lagatzeko eta bestetik, zeozer ondo ez badoa konturatzeko. Horixe da berrantolaketa neurologikoak lantzen duena eta Teresa Feliuk azalduko diguna. Teresa logopeda zen eskola publikoan, baina, orain, berrantolaketa neurologikoaren arloan egiten du lan. Hitzaldiarekin batera tailer praktikoa ere egingo dugu.

Etxean gauzak asko aldatu dira ...

Bai, eta ez beti onerako. Nik ama beti eza-gutu dut etxean behar nuenerako. Gaur egun ordu asko egiten dugu etxetik kanpora, eta gero, gauean, denok egoten gara nekatuta. Nire ustez alderdi horretatik atzera egin dugu. Lehen emakumeok etxeko ardura baldin bageneukan orain kanpokoak ere gehitu zaizkigu, eta horrek sortzen duen nekeak eragin dezake etxeko giroan. Etxeko lanak baloratuago baleude beharbada pertsona gehiago geldituko lirateke etxean.

“Interesgarria dena da ume bakoitzari bere bidea egiten laguntzea”

Eta eskolan?

Umeak 2-3 urterekin eskolara doazela eta, heziketaren ardura nagusia eskolaren gain dagoela pentsatzea ez da egokia. Eskolan gauza asko ikasiko dituzte, gauzak konpartitzen, esaterako, baina gogoan izan behar da beti, heziketaren gune nagusia etxean dagoela.

Eskolak ahal duena egiten du dakienarekin eta dituen baliabideekin. Umeak, helduon kasuan bezala, ez dira berdinak eta bakoitzak bere ezintasunak eta gaitasunak ditu. Interesgarria dena da ume bakoitzari bere bidea egiten laguntzea bere trebetasunak indartuz. Nahi eta ezin jarroteak frustrazioa dakar, norbere burua ezagutu eta onartzeak berriz, lasaitasuna eta motibazioa.

Eskola, arratsaldetako aktibitateak... gaurko umeek denbora gehiago egiten dute etxetik kanpora etxean baino.

Bai, egia da, baina ez dut uste garrantzitsuena hori denik, garrantzitsuena da umeak behar zaituenean hor egotea. Hor zaudela sentitzea.

Hiperaktibitate diagnostikoen gorakadak izan dezake zerikusirik horrekin?

Komeni dena da jakitea zer dagoen diagnostiko horren atzetik. Neurologo katalan baten adibideak azaltzen du ederki. Umea lo doa autoan, eta, bat-batean, txunbatxunbako musika batekin esnatzen dute. Umea dantzan hasten da, jo eta sua. Ohituta dagoelako. Neurologo horren ondorioa da ume hori etorkizunean hiperaktiboa izan daitekeela. Gaur egun loari ematen zaizkion tratu txarrek kalte handia eragiten dute. Adibide bat baino ez da.

Umeen jokaeren atzean beti dago zergatiren bat. Badago joera arazoak umearen izakerari egozteko: alperra da, gaiztoa da... Baina hori eginda kalte baino ez diogu egiten. Egin behar den galdera da: “zer pasatzen jake ume honi hola jokatzeko?” eta erantzunak bilatzen ahalegindu.

Zuek arazo horren jatorria bilatzen ahalegintzen zarete?

Bai. Jakintza horren arabera 0-7 urte bitartean umeek pasatzen dituzten etapa guztien ondorioz gertatzen dira neuroen arteko konexioak. Konexio neurologiko horiek dira etorkizunean pertsonari

ikasteko gaitasunak garatzeko aukera emango diotenak. Hasierako etapa horietatik (katamarran, lau hankatan, tximuaren postura...) abiatzen dira geroko prozesu guztiak. Etapa horietakoren bat behar bezala pasatzen ez badu, ume horrek aukera du etorkizunean hutsuneren bat izateko: espazioaren eta denbora kudeatzeko gaitasunean, pentsamenduan, irakurketan, idazketan... eta ondorioz zailtasunen batzuk gertatzeko ikasketa prozesuan.

“Umeen jokaeren atzean beti dago zergatiren bat”

Zer da egiten duzuen?

Umeari balorazio neurofuntzional bat egiten diogu, bere garapen motore eta sentsorialak zelakoak diren aztertzeko. Ondoren, hortik ateratako ondorioekin gurasoei tratamendua aholkatzen diegu, guk emateko modukoa izan ala ez. Zailtasunen bat duten ume gehienek egiten dute akatsen bat etapa horietako mugimenduak erreproduzitzerakoan. Adi egoitea da kontua.

Azken mezuren bat?

Zein garrantzitsua den umeari lehenengo urteetan laguntzea eta aukerak ematea pasatu beharreko etapak bere kabuz egin ditzan, ahalik eta laguntza txikienarekin, beti ere arreta jarriaz. Taka-taka, aulkia, eseraraztea, bi hankaren gainean jartzea... soberan daude, umeak lau hila betetik aurrera lurrean gero eta gehiago laga, beretzat hobe. Bere erritmora laga. Guk lantzen dugunaz gain badira noski umearen garapenean eragiten duten beste faktore batzuk; emozionala eta beste hainbat.



Pertsona bakoitzak bere jakintza iturriak eta ikasgaiak dauzka bizitzan. Zenbait herritarri eurenak zeintzuk diren galdetzeko irrika sortu zaigu.

Non edo zeinekin ikasi duzu bizitzan gehien?



Justo Rodriguez

Nik bodegan lan egin nuen 30 urtetik gora. Niri bodegak eman zidan jendea ezagutzeko aukera eta hemen integratzekoa. Jendea zelakoa den ikasi nuen han, denataz berba egiten genuen han eta horrela gauza asko ikasten dira. Atean sartu orduko banekien pertsona ze aldarterekin zetorren.



Juan Cruz Azkona

Suitzan ikasi dut gehien. Bizitzeko moduak oso desberdinak dira han eta hemen. Hango gizartean balorerik garrantzitsuenetakoa da bestearekiko errespetua. Errespetua da abiapuntua gizarte batek aurrera egiteko, elkarrengandik ikasteko bidea ematen duelako.



Maria Pilar Juaristi

Oinarria etxean dago. Osterantzeko dena ondo etorria izan dadila. Etxean, kalean, lanean ikasten da gehien. Nik entzuten diedanean gazteei esaten gaurko egunean aurrera egiteko bestea baino gaiztoagoa izan beharra dagoela, negargura ematen dit. Pertsona ona izatea da garrantzitsuena.



Amelia Perez

Bizitzak berak erakusten du gehien. Bizitzako gertaera eta bizipenek asko erakusten dute. Jendea ez da kanpoko itxuragatik ezagutzen. Nik medikuntza ikasten diharduen loibari esaten diot beti izateko gogoan pertsonak ez direla zenbakiak eta pertsona moduan tratatu behar direla.

Lehiaketa

Zein da?



Aurreko aleko erantzuna

Beñat Katalan, Preferenteko jokalaria.

Irabazlea



Patxi Osa

Saria:

Gaztelupe tabernan bi lagunentzako afaria

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atara eta hurrengo barixaku eguerdian egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidal ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Agenda

FUTBOLA

Zapatua 3, 16:30etan Ezozin
Sora (Erreg. Pref.) – Mondragon
 Zapatua 3, 19:00etan Ezozin
Sora (Erreg.) – Urki
 Eguena 1, 12:00etan Ezozin
Sora (Jub.) – Arizmendi
 Zapatua 3, 11:45etan Mojategin
 Arrasate – **Sora (Kad. Mut.)**
 Zapatua 3, 11:00etan Ezozin
Sora (Kad. Nesk.) – Intxurre
 Zapatua 3, 10:00etan Almen
 Arizmendi – **Sora (Inf.)**
 Domeka 4, 9:30ean Ipintzan
 Bergara – **Sora (Alebin 2. maila)**
 Domeka 4, 10:00etan Ezozin
Sora (Alebin 1. maila) – Aloña Mendi

BOLETA

Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa, hurrengo datak:
 Maiatzak 10, San Andres
 Maiatzak 17, Elgeta
 Maiatzak 24, Floreaga
 Maiatzak 31, Asola Berri
 Ekainak 7, Lastur

XI. PALA TXAPELKETA

Noiz hasi: maiatzaren 12an
 Finalerdiak: ekainaren 16an
 Finala: uztailaren 12an San Andresen
Bikoteak:
 Arrate Gisasola – Hiart Arluziaga
 Onintza Narbaiza – Amaia Amor
 Ainhoa Unamuno – Irune (Bergara)
 Sandra Gonzalez – Nagore
 Naiara Kortabarria – Ainhoa Zubizarreta

MENDIA

Domeka 4, 9:00etan Estazinuan
 Irukurutzeta Eguna. Irteera.

500 kiloko harriari tiraka

Dozena bat lagunek emakume-probetan jarduteko taldea osatu berri dute herrian. Entrenamenduak ere egin dituzte, maiatzaren 10ean Zeanurin (Bizkaia) eta 31n Soraluzen izango dituzten norgehiagokak prestatzeko. Bi herriotako taldeek indarrak neurtuko dituzte Gure esku dago dinamikaren barruan antolatuko diren ekitaldietan. Bostehun kiloko harriarekin 15 minutuko denboran plaza kopuru handiena zeinek egin jokatuko dute. Parte hartu nahi izanez gero, deitu 605705378 (Arkaitz) telefonora.



Entrenamendu saioa frontoian.

Azken aukera preferentearendako

Bi jardunaldiren faltan, preferentea laugarren dago sailkapenean, 51 punturekin. BOrdizia dago lidertzan 55 punturekin, eta, ostean, Urola eta Amaiak Bat, 53 eta 54 punturekin. Puntuei begiratuta, Ohorezko mailara igotzeko modu bakarra litzateke bi norgehiagoketan hiru puntu baino gehiago lortzea, eta aurretik dituen talderen batek huts egitea. Zuzendaritzak zaleei eskatu die Mondragon taldearen aurka jokatzea den partidura joateko; partidua maiatzaren 4an (zapatua) jokatuko da Ezozin, arratsaldeko 16:30ean.



Zaleen babesa jaso du preferenteak azken partiduetan.

Unamuno, Gipuzkoako pala txapelketan

Gurpildun aulkiko Gipuzkoako pala txapelketako finalerdia Soraluzen jokatuko da, maiatzaren 17an goizeko 10:00etan, Arane kiroldegian. Lau bikote lehiatuko dira, tartean Edurne Unamuno soraluzetarra. Finala Usurbilen jokatuko dute maiatzaren 31n.



Unamuno San Andreseko pala erakustaldian, iaz

Kontulan Aholkularitza S.L.
 Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarteak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. esk.
 Telefono: 943 75 17 82 Fax: 943 75 01 82

20590 Sorluze
 GIPUZKOA

JUAN MARI
 ARRXINDEGIA

943 75 24 40
 MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZENTZITARRAKI
 GUCIA ILANDAKO KONFUANTZAGATIKI

“Burutik eskuetara” egurrean tailatutako lanen erakusketa



Jon, Pedro eta Xabat erakusketa prestatzen.

Jon Mendizabal “Azalia”, Pedro Grande “Peito” eta Xabat Otxatorenaren artisauek egurrarekin egindako lanak ikusgai jarriko dituzte “Burutikeskuetara” erakusketan, eta maiatzaren 5etik 21era bitartean egongo da zabalik. Tailagileotako bakoitzak egurgintzako modalitate bat landu du, eta, hala, eurak egindako altzariak, eskulturak edota miniaturak jarriko dituzte bertan. Astegunetan 19:00etatik 20:30era, eta zapatuetan 12:00etatik 13:30era bitartean izango da zabalik erakusketa kiroldegiko gelan.

Salsa dantzatzen ikasteko aukera, Jabierren eskutik



“Gerria mugitzen ikasteko aukera aparta da” Javier.

Javier Argote kubatar gazteak salsa dantzatzeko saioak antolatu ditu. Astelehen eta eguenetan batzen dira Gaztetxe barreneko lokalean, 19:00etatik 20:00etara. Dagoeneko bost lagunek eman dute izena eta oinarrizko pausoak ikasten dabilta: bueltak zela eman, erritmoa zela eraman, hankak mugitzen ikasi... Bikoteka dantza egiten ikastea da helburua. Interesa duenak saioetako batera joanda eman dezake izena.

Jaietako kartel lehiaketara aurkezteko epea zabalik

Jaietako kartel lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago maiatzaren 31ra bitartean. Kartelak nahi adina kolore eta 33x47 cm-tako neurria izan behar du, eta “2014 SORALUZEKO JAIK” esaldia eroan behar du idatzita. Lehiaketako irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta aurkeztutako lanekin erakusketa antolatuko da, ekainaren 11tik 16ra. Sariak banatzeko ekitaldia ekainaren 15ean egingo da.

Kultur agenda

Maiatzaren 5etik 21era

ERAKUSKETA

“Burutik eskuetara”

Jon Mendizabal, Pedro Grande eta Xabat Otxatorenaren lanak, kiroldegiko erakusketa gelan

Ant: Jon, Pedro eta Xabat

Maiatzak 9, barixakua

HEZKUNTZA PLAZARA EGUNA

Ant: Hezkuntza komunitateko eragileak

Maiatzak 16, barixakua

HITZALDIA

“Ikasteko zailtasunei zela aurre egin” Guraso, irakasle eta hezitzaileendako Hizlaria: Teresa Feliu
20:00etan, antzokian

Ant: Feli Oregi

KONTZERTUA

“Norman” eta “La Hora del Primate”
22:00etan, gaztetxean

Ant: Soraluzeko gazteria

Maiatzak 17, zapatua

ANTZERKIA

“Comisaria especial para mujeres”

Urrut antzerki taldea

20:00etan, antzokian

Ant: Udala

Maiatzak 20, martitzena

BERTSO SAIOA

4. eta 5. mailako ikasleen eskutik

17:30ean, antzokian

Ant: Plaentxi Herri Ikastetxea

Maiatzak 30, barixakua

TRIPAFESTA

Afari begetarianoak

20:00etatik aurrera, gaztetxean

Ant: Tripafesta taldea

Maiatzak 31, zapatua

PLAZATIK GAZTETXERA BERTSO FINALA

Bazkaria, jolasak, finala eta “Bi bala” taldearen kontzertua

Egun osoz, gaztetxean

Ant: Plazatik gaztetxera

SOMABE

- Makina bereziak
- Lerro automatikoak
- Estankotasunaren kontrola

943 75 18 01 • Mendiola industrialdea 14, Sorluze


laibi
ELECTRICIDAD

Mendiola industrialdea, 13
20560 SORALUZE (Gipuzkoa)
Tel. 943 75 12 69 - 616 168 227
Faxa 943 75 23 41
gabillondo@laibi.net • www.laibi.com

Zorion agurrak



Ander Sanchez
Apiril 25ian 7 urte!
Koloretako muxu pila,
Laidaren partez!



Jone Piñeiro
Apiril 18xan 7urte!
Zorionak preioxal!
Asko maitte zaitugulako
muxu haundi haundi bat
etxeekuen partez!



Garazi eta Hiart
Maiatzan 13an eta 10ian
6 eta 3 urte!
Zorionak eta muxu bana
etxeko printzesei!



Laia Martin
Apiril 29xan 4 urte!
Zorionak sorgintxo, pila
maitte zaittugu!
Etxekuen partez!



Nora Leturiondo Garcia
Apiril 11n 9 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat, etxeekuen partez!!



Eider Varela
Apiril 22xan
Sekula ez galdu zure irribarre
polit hori. Muxu haundi bat,
maitte zaittugunon partetik!



Oier Vaquero Agirre
Apiril 15ian bi urte
Mila esker bi urte zoragarri
hauengatik! Zorionak
etxeekuen partez!



Arkaitz Larrañaga eta Maddi Maiora
Apiril 41 eta 8 urte!
Patxo bat familia eta bereziki Jokinen partez,
maitte zaittuztegu!



Ioritz Reglero Heras
Maiatzan 17xan 5 urte!!
Zorionak maittia, milloi bat
patxo familixian partetik.



Irati Oregi
Apirilaren 10ean 2 urte!
Zorionak gure etxeko
bihurritxua!! Txoko-marrubizko
muxuak etxeekuen partez!

Jaiotakoak eta hildakoak



Nahia Larreategi Sanchez
Danel Vega Alvarez
Ulises Cortes Cortes




Gregorio Chasco Irasuegi
Susana Zarobe Esnal
Luis Arrillaga Larrañaga
Jesus Mari Ojanguren Lizarriturri
Maria Angeles Leturiondo Agirregomezkorta
Hilario Iturbe Motriko
Carmen Lopez Brizuela



KM Desing
Disenua eta Sormena
Peligona Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:


- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armainuak
- Bannuko altzairuak



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



Elizpe Hartz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Implantzak

DOHAINIKO BERRIKIKETAK
FINANZAKETA ZURE NEKAZIA
KONPRONIOKORIK GABEKO BARRERAKETA

MUTUALIA, PADI (haumen arretarako hartz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 beheko, Soraluze



**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkarte**

1910etik

943 75 13 45



Iturria: Soraluze Iruditan.

Udaletxean ikurrina jarri zenekoa

1 977ko urtarrilaren 19an zintzilikatu zuten ikurrina udaletxeko balkoian. Egun garrantzitsua izan zen soraluzetarrendako, Frankismoak urte luzez ezarritako debekua gainditu eta herrian euskal herritarren ikur ofiziala ezarri ahal izan zelako. Irudian ageri den bezela, Zubi Nagusia herritarrez bete zen. Ikurrina noiz jarriko zain ageri dira herritarrek.



MARIA FELISA ALBERDI LARRAÑAGA
2013KO MAIATZAREN 1EAN ZENDU ZEN, GASTEIZEN
I. URTEURRENA

"Beti gogoan, beti bihotzian"

Senideak

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

PUB
INTXIXU

Egunez lasai,
gabaz akelarre...

HEZKUNTZA PLAZARA

Maiatzaren 9an *eguna*

- Goizean goizetik erakusketak, jolasak, tailerrak, antzerkia...
- Eguerdian bazkaria (Plaza Zaharrean)
- Arratsaldean Irrien Lagunekin jaia



herri jakintza nahi dugu eta jakintza herriarentzat nahi!

Antolatzaileak:

Haurreskola, Plaentxi LHI, Soraluze BHI, Helduen Heziketa Iraunkorra, Musika eskola, Gaztetxokoa, Parrandan ludoteka, Urrats dantza taldea, Bertso Eskola, Pintura Eskola, Antzerki tailerra, Kukumixo, Atxolin eta Keixeta guraso elkarteak, eta Udala.

HEZKUNTZA
plazara



AURRE-MATRIKULAK: Maiatzaren 27tik ekainaren 6ra
ATE IREKIAK: Maiatzak 22, 18:00etan



ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera, 8:00etatik 14:30etara eta 15:30etatik 18:30etara. Ostiraletan, 8:00etatik 14:30etara

Ibargarai, 1 20570 Bergara

943 76 38 40 (943 76 24 91)

www.imaltuna.com imaltuna@saremail.com

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Mekanizazioa (A-D).
- Instalazio elektrikoak eta automatikoak (A-D).
- Administrazio kudeaketa. (A-D).

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. (A-D + Bleanitza)
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa. (A-D + Eskaintza Partziala + Bleanitza).
- Automatizazioa eta Robotika Industriala. (A-D).
- Administrazioa eta Finantzak. (A-D + Bleanitza)
- Mekatronika Industriala. (D)

LANBIDE HEZIKETA DUALA

ESPEZIALIZAZIO GRADUONDOKOA: Hotzeko estazioetako graduondokoa

SARBIDE FROGARAKO PRESTAKETA KLASEAK.

ESKAINITZA PARTZIALA: fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa.

LANERAKO FORMAZIOA: Langile eta langabetuentzat ikastaroak.

ESKAERAREN ARABERAKO FORMAKUNTZA.



MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREANI

ERDI eta GOI Mailako ikasketak, lanerako formazioak, ikasketetako egutegia, mapa, zerrendak, prestatuak... askatu.

www.imaltuna.com

Ekuragari are:



Ignacio Zuloaga Institutua

EIBAR



Aurrematrikula Maiatzaren 5etik 15era

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkarturkeak



Alemania - Ingalaterra

